

# EUSKARA

Donostian ere  
euskaraz



Donostia Udalea  
Ayuntamiento de San Sebastián

EUSKARAREN  
BIZITASUNA

DONOSTIAN

25 urte

1991-2016

LA VITALIDAD DEL EUSKERA  
EN DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

# A AURKIBIDEA

## ÍNDICE

0. SARRERA	3
1. EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA	4
1.1. Hizkuntza gaitasuna	4
1.2. Euskararen kale erabilera	5
2. EUSKARA UDAL ADMINISTRAZIOAN	6
2.1. Udal Korporazioa	6
2.2. Udala eta erakunde autonomoak	6
2.3. Udalaren enpresa eta sozietate publikoak	8
3. EUSKARA IRAKASKUNTZAN	9
3.1. Helduen euskalduntze-alfabetatzea	9
3.2. Unibertsitate aurreko ikasketetako hizkuntza ereduak	10
3.3. Unibertsitatera sartzeko probetan euskararen erabilera	11
4. EUSKARA LAN MUNDUAN	12
5. EUSKARA KULTURAN ETA AISIALDIAN	13
6. EUSKARA INTERNETEN	14
7. ERRONKAK	16
0. INTRODUCCIÓN	3
1. CONOCIMIENTO Y USO DEL EUSKERA	4
1.1. Competencia lingüística	4
1.2. Uso del euskera en la calle	5
2. EL EUSKERA EN LA ADMINISTRACIÓN MUNICIPAL	6
2.1. La Corporación Municipal	6
2.2. El Ayuntamiento y los organismos autónomos	6
2.3. Empresas y sociedades públicas municipales	8
3. EL EUSKERA EN LA ENSEÑANZA	9
3.1. Euskaldunización y Alfabetización de adultos	9
3.2. Modelos lingüísticos en los estudios preuniversitarios	10
3.3. Uso del euskera en las pruebas de acceso a la Universidad	11
4. EL EUSKERA EN EL MUNDO LABORAL	12
5. EL EUSKERA EN LA CULTURA Y EL OCIO	13
6. EL EUSKERA EN INTERNET	14
7. RETOS	15

Duela 25 urte, 1991. urteko maiatzaren 9an, Donostiako Udalbatzak *Donostiako Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko Arauak* onartu zituen.

Ordutik hona aurrerapauso garrantzitsuak eman dira Donostian, oro har, euskararen ezagutzan nola erabileran, eta, pixkanaka, gizarte esparru berrietara zabaltzen joan da.

Euskarak azken hogeita bost urteetan izan duen bilakaera adierazteko donostiarren hizkuntza gaitasunaren eta erabileraren datuez gain, hiriko esparru nagusietako (udal administrazioa, irakaskuntza, aisialdia... ) datuak ekarri ditugu hona.

Ondorengo orriotan ikusiko duzue, urte hauetan guztietan euskararen egoera asko hobetu da, baina badago oraindik zer hobetu. Datozen urteetarako erronka garrantzitsuak ditugu, etorkizuneko Donostia Euskararen Hiria, euskaraz bizitzeko hiria, izan dadin. Horretarako, beharrezkoa izango da guztion inplikazioa eta konpromisoa, hau da, erakunde publikoena, gizarte eragileena eta norbanakoena.

Hace 25 años, el 9 de mayo de 1991, el Ayuntamiento aprobó las *Normas para la Normalización del Uso del Euskera en el Ayuntamiento y Municipio de Donostia / San Sebastián*.

Desde aquella fecha, se han dado pasos importantes en la ciudad tanto en el conocimiento como en el uso del euskera y, poco a poco, ha ido introduciéndose en nuevos ámbitos sociales.

Para dar a conocer cómo ha evolucionado el euskera en estos últimos 25 años, además de los datos relativos a la capacitación lingüística y al uso de la lengua por parte de las y los donostiarras, presentamos una serie de datos correspondientes a los diversos ámbitos de la ciudad (administración municipal, enseñanza, ocio...).

Como podréis comprobar en las páginas siguientes, la situación del euskera ha mejorado mucho en el período citado, pero todavía quedan tareas pendientes. Cara a los próximos años, nos enfrentamos a importantes retos para alcanzar el objetivo de que la Donostia del futuro sea la Ciudad del Euskera, una ciudad en la que se pueda vivir en euskera. Para ello, serán necesarios el compromiso y la implicación de todas y todos, es decir, de las instituciones públicas, los agentes sociales y las personas a nivel individual.

ENEKO GOIA LASO  
DONOSTIAKO ALKATEA

# 1


## EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA CONOCIMIENTO Y USO DEL EUSKERA

### 1.1 Hizkuntza gaitasuna / Competencia lingüística

#### BIZTANLERIAREN HIZKUNTZA GAITASUNA

COMPETENCIA LINGÜÍSTICA DE LA CIUDADANÍA

1991-2011



Urte hauetan, Donostian **euskaldunen kopurua era ohargarrian hazi da**: gaur egun, bi urtetik gorako herritarren artean **72.071 dira euskaldunak**. Ia euskaldunetan ere hazkundera gertatu da; beraz, gaur egun, **donostiarren bi heren euskaraz hitz egiteko edo ulertzeko gai da**.

Euskara ez dakitenen kopurua ia erdia izatetik herenera murriztu da.


Durante el período citado, **el número de euskaldunes ha aumentado de forma notable** en Donostia / San Sebastián, hasta el punto de que, hoy en día, entre los ciudadanos y ciudadanas de más de dos años, **72.071 son euskaldunes**. También ha aumentado el número de cuasi-euskaldunes, de modo que, en la actualidad, **dos tercios de los y las donostiarres son capaces de hablar en euskera o, al menos, entenderlo**.

Al mismo tiempo, el número de personas que no conocen el euskera se ha reducido, pasando de ser casi la mitad de la población a un tercio de ésta.

#### HIZKUNTZA GAITASUNAREN BILAKAERA HAUR ETA GAZTEENGAN (2-29 URTE)

EVOLUCIÓN DE LA COMPETENCIA LINGÜÍSTICA  
ENTRE NIÑOS/AS Y JÓVENES (2-29 AÑOS)

1991-2011



**Haur eta gazteengan (2-29 urte) euskararen gaitasuna oso nabarmen igo da.**

Azken 25 urteetan heren bat izatetik, bi heren baino gehiago (%72,49) izatera pasatu dira eta kopurua gorantz doa adinak behera egin ahala; 2-19 urte bitartekoen artean %81,58 dira euskaldunak.

**La competencia lingüística en euskera ha aumentado de forma muy significativa entre los niños, niñas y jóvenes (de 2 a 29 años).**

En los últimos 25 años, los euskaldunes de este tramo de edad han pasado de ser un tercio a ser más de dos tercios (72,49%). Además, el porcentaje aumenta en la medida en que disminuye la edad. Así, entre las niñas, niños y jóvenes de 2 a 19 años, el 81,58% son euskaldunes.




## 1.2 Euskararen kale erabilera / Uso del euskera en la calle

### EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA, ADINAREN ARABERA

USO DEL EUSKERA EN LA CALLE, EN FUNCIÓN DE LA EDAD

1993-2011



ITURRIA/FUENTE: Soziolinguistika Klusterra.

- Adinekoak / Mayores
- Helduak / Adultos
- Gazteak / Jóvenes
- Haurrak / Niños/as

Euskararen kale erabilera hazi egin da Donostian azken urteetan. Adin talde guztiak batera hartuta, ehunekoetan 6,5 puntu igo da: %9,5 zen 1993 urtean eta %15,9ra igo zen 2011n. Igoera nabarmenena haurren artean gertatu da, 10 puntuko igoera izan baita; gazteen artean, berriz, 6 puntu baino gehiagokoa.

Begi bistakoa denez, gaitasuna handitu ahala, erabilerak ere gora egin du, nahiz eta proportzio berean ez igo.

En los últimos años, el uso del euskera en la calle ha aumentado en nuestra ciudad. Si tenemos en cuenta todos los grupos de edad, observamos que el porcentaje de utilización de esta lengua en la calle ha aumentado 6,5 puntos. En efecto, en 1993 era de un 9,5% y en 2011, de un 15,9%. El incremento más significativo se ha producido entre los niños y niñas, ya que la diferencia con la situación anterior es de 10 puntos. Entre las y los jóvenes, el aumento ha sido de más de 6 puntos.


Evidentemente, al aumentar la capacitación lingüística, también lo ha hecho el uso, aunque no en la misma proporción.

## 2.1 Udalbatza / La corporación municipal

Azken 25 urte hauetan gora egin du nabarmen euskaren ezagutzak legealdi ezberdinetako alkate eta zinegotzien artean; gaur egun, hirutik bi euskalduna da.

En los últimos 25 años, el conocimiento del euskera entre los miembros de la corporación municipal de las diferentes legislaturas se ha incrementado de forma notable, hasta el punto de que, actualmente, dos de cada tres son euskaldunes.

**UDALBATZA OSATZEN DUTEN KIDEEN HIZKUNTZA GAITASUNA**  
COMPETENCIA LINGÜÍSTICA DE LOS MIEMBROS DE LA CORPORACIÓN MUNICIPAL



## 2.2 Udala eta bere erakunde autonomoak

El Ayuntamiento y los organismos autónomos

1990ean hasi zen Donostiako Udaleko euskararen erabileraren normalizatzeko prozesua. Urte horretan lanpostuen %38,51ri ezarri zitzaion euskara ere ezagutzeko derrigor tasuna. Gero, herritarren hizkuntza gaitasunak gora egin duen neurri berean joan da igotzen ehuneko hori. Gaur egun, 5. plangintza aldia (2013-2017) gaude, eta udal administrazioiko lanpostuen %77,20k du derrigorrezko hizkuntza eskakizuna, lanpostuari dagozkion eginkizunen arabera.

En 1990 comenzó el proceso de normalización del uso del euskera en el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián. Ese mismo año, se implantó el requerimiento de saber también euskera en el 38,51% de los puestos de trabajo. Posteriormente, en la medida en que la capacitación lingüística de la ciudadanía ha ido en aumento, este porcentaje también se ha incrementado. Actualmente nos encontramos en el 5º período de planificación (2013-2017), en el que el 77,20% de los puestos de trabajo de la administración municipal tiene establecido un perfil lingüístico preceptivo, de acuerdo con las funciones correspondientes al puesto.


Udaleko zuzendaritza eta erakunde autonomo guztietan erabilera batzordeak daude planaren jarraipena egiteko, eta Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean aritzen dira.

Denbora tarte horretan aurrerapauso garrantzitsuak eman dira herritarrei zerbitzua euskaraz eman ahal izateko eta euskara ere lan hizkuntza izan dadin. Bitartean, udal langileen gaitasuna poliki-poliki areagotuz joan da, ondoko grafikoa ikusten den moduan.

Además, en todas las direcciones y organismos autónomos del Ayuntamiento, se han creado comisiones de uso, las cuales tienen como objetivo el seguimiento del plan, en colaboración con el Servicio de Euskera.

En ese período de tiempo, se han dado pasos importantes para poder dar servicio a la ciudadanía en euskera y para que esta lengua sea, junto al castellano, lengua de trabajo. Simultáneamente, la capacitación lingüística de los y las trabajadores municipales ha ido creciendo progresivamente, tal como podemos observar en el gráfico siguiente.

**UDALA ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOAK. LANGILEEN HIZKUNTZA GAITASUNA**  
 AYUNTAMIENTO Y LOS ORGANISMOS AUTÓNOMOS. COMPETENCIA LINGÜÍSTICA DEL PERSONAL



Hona hemen gaurko egoeraren adierazle batzuk:

- Langile kopurua: **1.433**
- Lanpostuan aritzeko eskatzen den hizkuntza gaitasuna egiaztatu duten langileak: **%68,46**
- Udaleko harrera postuetan hizkuntza erabilera: **%92 euskaraz**
- Herritarren hizkuntza erabilera Udalarekin: **%27,57 euskaraz**
- Erabilera Batzordeak: **19** (127 langile + 6 hizkuntza normalizatzaile)
- Euskaraz nagusiki lan egiten duten atalak: **4** (Euskara Zerbitzua, Partaidetza, Berdintasuna, Hezkuntza)

Estos son algunos de los indicadores de la situación actual:

- N° de trabajadores/as: **1.433**
- Personal que tiene acreditada la capacitación lingüística exigida para desempeñar el puesto que ocupa: **68,46%**
- Lengua de atención al público en el Ayuntamiento: **92% en euskera**
- Uso de la lengua que hace la ciudadanía en sus relaciones con el Ayuntamiento: **27,57 % en euskera**
- Comisiones de Uso: **19** (127 trabajadores y trabajadoras + 6 normalizadoras y normalizadores lingüísticos)
- Departamentos que trabajan principalmente en euskera: **4** (Servicio de Euskera, Participación, Igualdad y Educación)

## 2.3 Udalaren enpresa eta sozietate publikoak

### Empresas y sociedades públicas municipales

Donostiako sei enpresa zein sozietate publikoek ekin diote beren euskalduntze prozesuari: Dbus - Donostiako Tranbia Konpainiak, Donostiako Etxegintzak, Donostia Kulturak, Polloe Hileta Zerbitzuak, Donostia Turismoak eta Donostiako Sustapenak.

Oso izaera ezberdineko enpresak dira, eta horietako batzuek urteak daramatzate hizkuntza normalizazio prozesuan murgilduta. Enpresa guztietan erabilera batzordeak daude planaren jarraipena egiteko, Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean.

Seis de las empresas y sociedades públicas municipales de Donostia / San Sebastián han emprendido un proceso de euskaldunización: Dbus-Compañía del Tranvía de San Sebastián, Entidad Pública Empresarial de Vivienda, Donostia Cultura, Servicios Funerarios Polloe, San Sebastián Turismo y Fomento San Sebastián.

Se trata de empresas de muy distinta naturaleza. Algunas de ellas llevan años inmersas en el proceso de normalización lingüística. En todas las empresas cuentan con comisiones de uso de las lenguas, para hacer el seguimiento del plan, en colaboración con el Servicio de Euskera.

Hona hemen datu batzuk:

Estos son algunos de los datos más relevantes:

<b>LANGILE KOPURUA</b> Nº DE TRABAJADORES/AS	<b>873</b>
<b>LANGILE EUSKALDUNAK</b> TRABAJADORES/AS EUSKALDUNES	<b>% 57</b>
<b>HARRERA HIZKUNTZA: EUSKARAZ</b> LENGUA DE ATENCIÓN: EUSKERA	<b>% 81</b>
<b>6 batzorde</b> / comisiones <b>25 kide</b> / miembros	





# 3


## EUSKARA IRAKASKUNTZAN EL EUSKERA EN LA ENSEÑANZA

### 3.1 Euskalduntze-alfabetatzea / Euskaldunización y alfabetización

#### HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZE, ADINAREN ARABERA

EUSKALDUNIZACIÓN Y ALFABETIZACIÓN DE ADULTOS, EN FUNCIÓN DE LA EDAD

1991-2016




- Donostiako euskaltegietan urtero, batez beste, **4.000 ikasle** ari dira euskara ikasten.
- Azken 25 urteotan, **30 urtetik beherako gazteen matrikulazio kopurua jaisten** joan den neurrian **adin horretatik gorakoena igotzen** joan da. Gazteen jaitsiera hori neurri handi batean **hezkuntzako hizkuntza eredu**n eraginez gertatu da.
- Gaur egun, 31-65 urte artekoa da nagusitzen den adin multzoa, euskaltegietan matrikulatutako guztien bi heren baino gehiago (% 69,67) adin tarte horretakoak baitira. 65 urtetik gorakoen artean ere, neurri apalagoan bada ere, goranzko joera nabarmentzen hasi da.
- Euskalduntze prozesuaren osagarri gisa, **mintzarena lantzeko egitasmoetan** – Mintzalaguna, Mintzanet eta Mintzakuadrila – urtero, gutxi gora-behera, **500 lagunek** parte hartzen dute.
- El número anual de **alumnos y alumnas** que estudian euskera en los euskaltegis de Donostia / San Sebastián alcanza una cifra media de **4.000**.
- En los últimos 25 años, el número de **matriculas de jóvenes menores de 30 años ha ido disminuyendo**, mientras que el de **mayores de esa edad ha aumentado** en la misma medida. Este descenso se debe, en gran medida, a la influencia de los **modelos lingüísticos que se ofertan en la enseñanza**.
- En la actualidad, el tramo de edad predominante en los euskaltegis es el que va de los 31 a los 65 años. En efecto, más de dos tercios de las matriculas (69,67%) corresponden a personas de esa edad. Entre las personas mayores de 65, también ha comenzado a apreciarse una tendencia al alza, aunque en menor medida que la que se ha dado en el grupo de edad anteriormente citado.
- Aproximadamente, **500 personas al año** participan en diversos **programas para practicar euskera** –Mintzalaguna, Mintzanet eta Mintzakuadrila–, que constituyen un complemento del proceso de euskaldunización.

## 3.2 Unibertsitate aurreko ikasketetako hizkuntza ereduak


### Modelos lingüísticos en los estudios preuniversitarios

#### HIZKUNTZA EREDUAREN BILAKAERA 1991-2016 EVOLUCIÓN DE LOS MODELOS LINGÜÍSTICOS


**HAUR HEZKUNTZA (HH)**  
EDUCACIÓN INFANTIL




**LEHEN HEZKUNTZA (LH)**  
EDUCACIÓN PRIMARIA



**DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH)**  
EDUCACIÓN SECUNDARIA OBLIGATORIA




**BATXILERGOA**  
BACHILLERATO



**LANBIDE HEZIKETA.**  
**HIZKUNTZA EREDUAREN BILAKAERA**  
 FORMACIÓN PROFESIONAL.  
 EVOLUCIÓN DE LOS MODELOS LINGÜÍSTICOS

1991-2016



Duela 25 urte, **A eredu** zen nagusi unibertsitate aurreko irakaskuntzako maila guztietan, **Haur Hezkuntzan izan ezik**.

Gaur egun, **D eredu** nagusitzen da ikasketa maila guztietan, **Lanbide Heziketan izan ezik**; Haur Hezkuntzan ikasleen % 85,33 D ereduak dira eta proportzioa jaisten doa ikasketa mailan gora egin ahala. Lanbide Heziketan, 1991. urteaz geroztik D ereduaren kopurua hirukoiztu egin den arren, A eredu da nagusi; egungo eskaintza ez da gainerako ikasketetako bezainbestekoa.

Hace 25 años, **el modelo A** predominaba en todos los niveles de enseñanza preuniversitaria, a excepción de la **Educación Infantil**.


En la actualidad, **predomina el modelo D** en todos los niveles de enseñanza, **excepto en la Formación Profesional**. Por lo que se refiere a la Educación Infantil, el 85'33% del alumnado cursa sus estudios en el modelo D, aunque este porcentaje va disminuyendo en la medida en que vamos pasando a niveles educativos superiores. En cuanto a la Formación Profesional, el modelo A es el predominante, aunque es verdad que, desde el año 1991, el número de alumnos y alumnas que estudian en el modelo D se ha triplicado; actualmente, todavía, la oferta en euskera es menor que en el resto de los niveles educativos.

### 3.3 Unibertsitatera sartzeko probetan euskararen erabilera

Uso del euskera en las pruebas de acceso a la Universidad

**UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBAK.**  
**HIZKUNTZEN ERABILERAREN BILAKAERA**  
 PRUEBA DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD.  
 EVOLUCIÓN DEL USO DE LAS LENGUAS

2003-2016



**Unibertsitatera sartzeko probak:** euskaraz egitea aukeratzen duten ikasleen ehunekoa igotzen ari da urte urte; 2003. urteaz geroztik, ia 20 puntu igo da, eta, 2016an, ikasleen %58,94k probak euskaraz egin dituzte.

**Pruebas de acceso a la Universidad:** el porcentaje de estudiantes que eligen hacer estas pruebas en euskera aumenta año tras año, como aparece reflejado en los siguientes datos: desde 2003, ha aumentado casi 20 puntos y, en 2016, el 58'94% de las alumnas y alumnos han realizado las pruebas de acceso a la Universidad en euskera.

# 4

## EUSKARA LAN MUNDUAN EL EUSKERA EN EL MUNDO LABORAL

Donostiako ekonomian pisu handia dute zerbitzu enpresek; hau da, herritarrekin, bezeroekin, harreman zuzena duten enpresek. Hori dela eta, garrantzi berezia du Donostiako lan munduan euskararen erabilera indartzeko hizkuntz irizpide egokiak finkatzeak.

Las empresas de servicios tienen un gran peso en la economía de Donostia / San Sebastián. Se trata de empresas que tienen una relación directa con la ciudadanía y con la clientela, por lo que cobra especial importancia establecer unos criterios lingüísticos adecuados para reforzar el uso del euskera en el mundo laboral de nuestra ciudad.

### Donostiako 1.275 enpresa eta establezimenduk euskararen aldeko konpromisoa agertu dute

1.275 empresas y establecimientos de la ciudad han adquirido el compromiso a favor del euskara

<b>BIKAIN ZIURTAGIRIA</b>	<b>50</b>
<b>BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA</b>	<b>127</b>
<b>"HEMEN ERE EUSKARAZ"</b>	<b>1.098</b>

50 enpresak eskuratu dute Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak sortutako Bikain Ziurtagiria, enpresa nahiz erakunde batean euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa egiaztatzen duena.

Cincuenta empresas han obtenido el Certificado Bikain, creado por la Viceconsejería de Política Lingüística y que acredita la presencia, uso y gestión del euskera en empresas y organismos.

127 enpresak eskuratu dute enpresa munduan euskararen erabilera aitortzen duen Euskararen Gizarte Kontseiluak sorturiko BAI Euskarari Ziurtagiria.

Por otro lado, 127 empresas han conseguido el Certificado Bai Euskarari, que concede el Consejo de Organismos Sociales del Euskera (Kontseilua), como reconocimiento de la utilización del euskera en el mundo empresarial.

1.098 denda eta establezimenduk jarri dute Donostiako Udalaren Euskara Zerbitzuak sortutako "Hemen ere euskaraz" eranskailua, haietan euskaraz hitz egin daitekeela adierazten duena.

1.098 tiendas y establecimientos han colocado en sus locales la pegatina "Hemen ere euskaraz", creada por el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, para que la clientela sepa que en ellos pueden ser atendidos en euskera.



### Donostiako enpresak Interneten

Las empresas donostiaras en Internet

Donostian 10 langile baino gehiago dituzten enpresen artean, maila ezberdinean bada ere, **%65,9k** euskara erabiltzen du bere web orrian.

El **65,9%** de las empresas donostiaras que cuentan con más de diez trabajadores y/o trabajadoras utiliza el euskera en su página web, si bien en diferente medida.

## 5.1 Euskaraz egindako kultur eta aisialdiko jarduerak

### Actividades culturales y de ocio en euskera

Azken 12 urte hauetan etengabe egin du gora Donostian, urtean zehar, euskaraz egiten diren orotariko kultur jardueren kopuruak.

Ohiko antzerki programazioan euskarazko antzerki profesionalaren eskaintza egonkortzea lortu da azken urteetan. 2016an **12 obra berri** programatu dira euskaraz, dagoeneko.

Poltsiko antzerkian, berriz, 15 emanaldi eskaini dira euskaraz; emanaldi guztien erdia, hain zuzen ere.

Azken urteetan ia urtero izan dugu film bat euskaraz Zinemaldia-ren sail ofizialean. Eta, aurren, sail guztietan haur nahiz helduentzat eskaini diren filmen %28,16 eman da euskaraz edo euskaraz azpitolatuta.

Donostia Kulturak antolatzen dituen ikastaroetan ere bilakaera positiboa izan da azken 20 urteetan. 1997an ikastaroen %31 eskaini ziren euskaraz eta 2016an ikastaroen erditik gora, %53a. Gainera, 2013az gerotik, haur eta gazteei zuzenduriko ikastaro guztiak euskaraz eskaintzen dira.


Durante los últimos doce años, ha ido aumentando de forma continua el número de actividades culturales de todo tipo que, a lo largo del año, se llevan a cabo en euskera en Donostia / San Sebastián.

En los últimos años, se ha conseguido consolidar la oferta de teatro profesional en euskera en la programación habitual. En lo que llevamos de año, ya se han programado **12 obras nuevas** en euskera.

Por lo que respecta al teatro de bolsillo, la mitad de las obras, es decir, 15, han sido en representadas en euskera.

Últimamente, casi todos los años se ha presentado una película en euskera en la sección oficial del Zinemaldia. Por otro lado, este año, el 28,16% de las películas que se han proyectado en todas las secciones, tanto para niños y niñas como para personas adultas, se han proyectado en euskera o con subtítulos en esta lengua.

La evolución en lo que se refiere a los cursos que organiza Donostia Kultura también ha sido positiva estos últimos 20 años, tal como aparece reflejado en los siguientes datos: en 1997, los cursos que se ofrecieron en euskera representaban el 31% del total y, en 2016, ese porcentaje ha ascendido al 53%, es decir, algo más de la mitad de los cursos organizados. Además, desde 2013, todos los cursos para niños, niñas y jóvenes se ofrecen en euskera.



## 5.2 Euskara kirolean

### El euskera en el deporte

Donostia Kirolak antolatutako ikastaroetan gora egin du azken urteetan euskaraz jardun dutenen kopuruak.

Haurrei zuzenduriko ikastaroetan, batez ere, gertatu da igoera. 2016ko udako ikastaroetan haurren %64 aritu da euskaraz.

Donostiako 18 kirol elkarte esanguratsuetako euskararen errealitateari buruzko diagnostikoa egin berri da, eta entrenatzaileen euskara ezagutzari dagokionez, elkarte horietako 409 entrenatzaileetatik 315 euskaldunak direla nabarmendu da, %77,02 hain zuzen ere.

En los últimos años, ha aumentado el número de personas que han realizado en euskera los cursos organizados por Donostia Kirola.

Este incremento se ha hecho patente, sobre todo, en los cursos dirigidos a niños y niñas. El 64% de las niñas y niños han participado en los Cursos de Verano 2016 en euskera.

Recientemente, se ha realizado un estudio sobre el conocimiento del euskera de los entrenadores y entrenadoras de 18 asociaciones deportivas de San Sebastián. Según los datos obtenidos, de 409 entrenadores y entrenadoras 315 son bilingües, es decir, el 77,02%.

# 6


## EUSKARA INTERNETEN EL EUSKERA EN INTERNET

### 6.1 Euskararen presentzia Interneten / La presencia del euskera en Internet

- Munduan 6.000 hizkuntza baino gehiago dago eta horietatik %5 besterik ez da erabiltzen Interneten, eta euskara da horietako bat. Interneteko nabigazio hizkuntzen artean 44. posizioa du euskarak.
- Sare sozialak: Twitterren 33 hizkuntza daude, eta horietako bat euskara da (Europar ofizial diren hainbat ez daude oraindik).
- Wikipedian munduko hizkuntza guztietatik 34. postua dauka euskarak. 204.000 artikulutik gora argitaratu dira dagoeneko euskaraz (Europar ofizialak diren 11 estatu hizkuntzatan baino gehiago).
- En el mundo existen más de 6.000 lenguas, pero en Internet sólo se utiliza el 5% de ellas. El euskera está dentro de ese 5%. Entre las lenguas de navegación de Internet, el euskera ocupa el puesto 44.
- Redes sociales: en Twitter se utilizan 33 lenguas diferentes, siendo una de ellas el euskera (algunas lenguas oficiales en Europa, todavía no se utilizan en esta red social).
- En la Wikipedia, el euskera ocupa el puesto 34 entre todas las lenguas del mundo. Se han publicado ya más de 204.000 artículos en nuestra lengua (más que en 11 lenguas estatales oficiales de Europa).

#### INTERNETEN EUSKARAZ ARITZEN DEN ERABILTZAILAEN %KOA

PORCENTAJE DE USUARIOS DE INTERNET EN EUSKERA



Interneten lau herritarretik bat euskaraz ere aritzen da. Gazteen artean are gehiago, hirutik bat aritzen baita euskaraz Interneten

Uno de cada cuatro ciudadanos y ciudadanas utiliza el euskera en Internet. Esta proporción aumenta entre la juventud, llegando al tercio de usuarios y usuarias.

### 6.2 donostia.eus: erabiltzaileek aukeratu duten hizkuntza

donostia.eus: lengua elegida por los usuarios y usuarias

donostia.eus, Donostiako Udalaren webguneak euskaraz nahiz gaztelaniaz eskaintzen ditu bere edukiak, eta 2016an, azaro bitartean, 443.362 erabiltzailek aukeratu du euskara, erabiltzaile guztien %22,9k.

El sitio web del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, donostia.eus, ofrece sus contenidos tanto en euskera como en castellano. En 2016, de enero a noviembre, 443.362 usuarios y usuarias, es decir, un 22,9% del total, han elegido el euskera.

Según muestran los datos sociolingüísticos de los últimos 25 años, los y las donostiarras han apostado por el euskera. Actualmente, **el 80% de los y las jóvenes son euskaldunes**, por lo que se adivina un escenario en el que nuestra ciudad, dentro de 25 años, será euskaldun.

Debemos apostar porque, en este proceso, nadie quede relegado, para lo que debemos dar a toda la ciudadanía la oportunidad de conseguir la capacitación lingüística necesaria para relacionarse, trabajar y disfrutar de la variada oferta cultural en euskera.

Gran parte de la ciudadanía ha decidido euskaldunizarse o alfabetizarse en euskera y la mayoría de los y las donostiarras matriculan a sus hijas e hijos en los modelos lingüísticos en euskera. En gran medida, a ello se debe el sorprendente **aumento de la capacitación lingüística**. Aumento que pone en evidencia el hecho de que de cada diez jóvenes que quieren estudiar en la Universidad, seis hagan las pruebas de acceso en euskera, teniendo en cuenta que, para poder optar a los estudios que les interesan, tienen que asegurarse de que consiguen los mejores resultados posibles.

Sin embargo, todavía queda mucho por mejorar. Si bien es verdad que el número de jóvenes que estudian en euskera en **Bachillerato y en Formación Profesional** ha aumentado de manera importante, los modelos en euskera no tienen en estos estudios el auge que tienen en otros. Por ello, debemos ampliar y garantizar, lo antes posible, las oportunidades de aprender en euskera a estos alumnos y alumnas.

Se observa que los y las euskaldunes tienen tendencia a relacionarse con otros euskaldunes en euskera y, efectivamente, **el uso de esta lengua** ha aumentado (tal como lo muestran las mediciones realizadas en la calle), pero no lo ha hecho en la misma medida en que ha aumentado su conocimiento.

Asimismo, aunque el uso del euskera entre los y las jóvenes es mayor que antes, no ha aumentado en la medida que esperábamos. Seguramente, este hecho guarda relación con algunas carencias de la **oferta cultural, deportiva y de ocio** que se dirige a los jóvenes en esta lengua.

Aunque en los últimos años se han llevado a cabo muchas más actividades en euskera, todavía hay que incrementar la oferta en algunos ámbitos.

Sin embargo, en el amplio espacio que conforman **Internet** y las redes sociales, el euskera se ha introducido con gran fuerza, porque los usuarios y usuarias, sobre todo, jóvenes, han optado por su uso tanto para consumir contenidos como para crearlos.

En el **ámbito económico**, muchas empresas y establecimientos de Donostia / San Sebastián han conseguido alguno de los distintivos o certificados que sirven para acreditar la calidad del uso del euskera o la capacitación para prestar servicios en esta lengua. Ése es, precisamente, el camino a seguir para que la ciudadanía tenga cada vez más posibilidades de relacionarse en la lengua de su elección.

**El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián** ha participado de todos estos cambios que se han dado en la ciudad en los últimos 25 años, además de constituir un agente fundamental de esta transformación. El personal del Ayuntamiento también ha realizado un gran esfuerzo para adquirir la capacitación lingüística necesaria para desempeñar su labor en euskera. Gracias a ello, actualmente, en la práctica totalidad de los puestos de atención al público, está garantizada la atención en euskera. Así mismo, el propio Ayuntamiento, en solitario o en colaboración con otros, ha apostado claramente por ofrecer a la ciudadanía actividades de todo tipo en euskera. Nuestro reto para los próximos años es poder dar siempre nuestro **servicio en euskera** y, por otro lado, que el euskera sea también **lengua de trabajo** en el Ayuntamiento.

Es responsabilidad de todas y de todos, del Ayuntamiento y de otros y otras agentes sociales, responder adecuadamente a la demanda que hace la ciudadanía en relación a su opción lingüística y superar los obstáculos e inercias que hacen más difícil materializar esta opción. En los próximos años, van a tener lugar cambios importantes, y nos corresponde nosotras y nosotros ir despejando el camino para que las preferencias de la ciudadanía puedan hacerse realidad.



# ERRONKAK

Donostiarrek euskararen aldeko aukera egin dute, hori erakusten dute azken 25 urte hauetako datu soziolinguistikoek. **Gazteen % 80tik gora euskalduna da** dagoeneko, eta horrek nagusiki euskalduna izango den hiri baten eszenarioa aurkezten digu, hemendik 25 urtera.

Prozesu horretan inor alboan ez geratzea izan behar du gure apustuak. Herritar guztiei eman behar diegu harremanetarako, lanerako edo askotariko kultur eskaintzaz gozatzeko behar duten hizkuntza gaitasuna lortzeko aukera.

Herritar askok erabaki du bere burua euskalduntzea edo alfabetatzea, eta donostiar gehienek beren seme-alabak euskarazko hizkuntza ereduatan matrikulatzea aukeratu dute. Horri zor diogu, neurri handi batean, **hizkuntza gaitasunean** gertatu den igoera harrigarria. Nola ulertu, bestela, unibertsitatera joan nahi duten hamar gazteen artean seik unibertsitatera sartzeko proba euskaraz egitea, aukeratutako ikasketak egin ahal izateko emaitza onenak ziurtatu nahi dituztenean?

Badugu, ordea, zer hobetu. **Batxilergoan eta Lanbide Heziketan** euskara ikasten dutenen kopurua indartsu igo bada ere, euskarazko ereduak ez dute beste mailetan duten indarra. Ikasle hauei euskaraz ikasteko aukerak zabaldu eta ziurtatu behar dizkiegu, lehenbailehen.

Euskaldunek euskaldunekin euskaraz aritzeko joera dute eta **euskararen erabilerak** gora egin du, kale neurketek erakusten duten bezala, baina ez euskararen ezagutzak gora egin duen neurri berean.

Gazteen artean erabilerak gora egin badu ere, ez du egin espero genuen neurrian eta horrek badu zer ikusia, seguruena, adin horiei egokitutako euskarazko **kultur, aisialdi**

**eta kirol eskaintzaren** gabeziekin. Izan ere, azken urteetan euskaraz egindako jarduerak asko ugariatu badira ere, hutsuneak sumatzen dira zenbait arlotan.

**Internetek** eta sare sozialek eskaintzen duten esparru zabalean, berriz, indar handiz sartu da euskara, erabiltzaileek, batez ere, gazteek, haren alde egin baitute edukiak kontsumitzeko nahiz sortzeko.

**Ekonomiaren arloan**, Donostiako enpresa eta establezimendu ugari lortu du euskararen kalitatea edo zerbitzua euskaraz emateko gaitasuna adierazten duen ikurretako bat. Bide hori urratzen jarraitu behar da, herritarrek, horrela, gero eta aukera gehiago izan dezaten harremanak haiek aukeratutako hizkuntzan gauzatzeko.

**Donostiako Udalak** parte hartu du azken 25 urteetan hirian gertatzen ari den eraldaketa honetan, eta funtsezko eragilea izan da aldaketa horretan. Etxean bertan, udal langileek ahalegin handia egin dute bere lanean euskaraz aritzeko gaitasuna eskuratzen, eta gaur egun herritarrei harrera egiteko lanpostu ia guztietan eskaintzen da arreta euskaraz. Eta udalak, berak bakarrik edo elkarlanean, antolatzen dituen jardueretan ere apustu garbia egin du herritarrei era guztietako jarduerak euskaraz eskaintzeko. Datozen urteetarako erronka da **zerbitzua euskaraz** beti eskaini ahal izatea eta euskara ere udalaren **lan hizkuntza** izatea.

Denon erantzukizuna da, udalarena nahiz beste gizarte eragileena, herritarrek beren hizkuntz hautuarekin adierazten duten eskaerari modu egokian erantzutea, eta hau hori gauzatzeko dauden oztopoak eta inertiak gainditzea. Datozen urteetan aldaketa ikusgarriak gertatzera doaz, guri dagokigu herritarren aukerei bidea zabaltzea.



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián  
Euskara Zerbitzua



#ereeuskaraz

Konstituzio plaza 2-behea

Tel.: 943 483 750

Faxa: 943 483 765

udala\_euskara@donostia.eus

[www.donostiaeuskaraz.eus](http://www.donostiaeuskaraz.eus)